



OINARRIZKO EKINTZAK

Enpresaren ekintza nagusiak elbarritasunen bat edo desgaitasunen bat duten pertsoneri taulak saltzea eta surfa egiteko aukera eskaintzea da. Hala ere, desgaitasunik ezta elbarritasunik ez duten pertsonak ere, gure zerbitzuetaz gozatu dazekete. Horretarako, gure enpresak pertsonalizatuko ditu taulak eta surf klaseak eskainko zaizkie. Guretzako garrantzitsuena edozeinek surfaz normaltasunez disfrutatzeko aukera izatea da, hori gure esku dago. Enpresan, begiraleak kontratatuko ditugu lokalean egoteko, elbarrituei laguntzeko eta bere esperientzia hobea izateko.

Taulen produkzioaren prozesua horrela egiten da: enpresa bati erosten dizkiogu taulak, taula batzuk gure lokalera joango dira zuzenean. Hauek moldeatu gabeko taulak izango dira. Bestalde, taula multzo bat fabrikara joango da moldeatuak izateko. Moldeatzerakoan, gure lokalaren almazenera eramango ditugu bertan elbarrituek surf klaseak jaso ahal izateko. Geroago, dendan salduko ditugu edo gure web orritik ere erosteko aukera izango dute. Bukatzeko, hainbat arazo eduki ditzazkegu. Adibidez, taula asko ez saltzea. Arrazoi horrengatik irtenbide bat bilatu dugu: desgaitasunik gabeko pertsonentzat ere bideratuta egongo da.

Gure produktua erosteko, produktuak gustatu behar zaizkizu. Produktua bezeroaren gustukoa bada, bezeroak gure web orrian zein surf eskolan eskaintzen ditugun zerbitzu zein taulak ikusteko aukera izango du. Ondoren, taula bat erosteko intenzioa badute, internetez edo dei bidez gurekin harremanetan jarri beharko dira eta ordua hartu beharko



dute. Hauen taula diseinatzeko, gure fabrikara etorri behar direlako, neurriak eta xehetasunak zehaztera. Taula egiteko, datu guztiak hartu ondoren, bezeroaren mugikor zenbakia hartuko da. Bi aste barru, bere taula modifikatzeaz bukatzean, bezero honi abisatu eta berriro ere fabrikara etorriko da produktuaren bila.

